



OGP EUSKADI 2018-2020 EKINTZA- PLANA EGIKARITZEARI BURUZKO EBALUAZIO PARTEKATUA

OGP EUSKADI 2018-2020 EKINTZA-PLANA EGIKARITZEARI BURUZKO
EBALUAZIO PARTEKATUA INPLEMENTATZEA

Azaroko lehendabiziko astean eginiko ikerketa

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 15a

AURKIBIDEA

- A. SARRERA
- B. HELBURUAK ETA PROZESU METODOLOGIKOA
 - 1. Helburua eta planteamendu metodologikoa
 - 2. Prozesu metodologikoa eta azterketa-lagina
- C. OGP 2018-2020 EKINTZA-PLAN PARTEKATUAREN EMAITZAK
 - 1. OGP Euskadi osatzen duten taldeen eta espazioen ebaluazioa
 - 2. OGP Euskadin ezarritako konpromisoen ebaluazioa
 - 3. OGP Euskadi webgunearen eta bertako informazioaren ebaluazioa
- D. ONDORIOAK

A. SARRERA

OGP Euskadi 2018-2020 Plana ebaluatzerako eta 2020-2022 aldirako plan berria definitzerako prozesuetan, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak laguntza behar du hiru zereginetan:

- 1. Autoebaluazioari ekitea, zenbateraino gauzatu den OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Plana.**
2. Ebaluazio partekatua egitea, zenbateraino gauzatu den 3. konpromisoa.
3. Orientabide metodologikoak definitzea, jakiteko ea herritarren partaidetzak nolako inpaktua duen politika publikoak diseinatu eta egikaritzeko orduan, eta nola eragiten duen kontratazioan, hirigintzan, herritarren arretan, instalazioen mantentze-lanetan eta halako alderdietan.

Txosten honen helburu nagusia da OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planaren autoebaluazioaren emaitzak aurkeztea, betiere prozesuan parte hartu duten eragileei batera erreparatuz.



B. HELBURUAK ETA PROZESU METODOLOGIKOA


Proiektuaren helburuak

Proiektuaren helburua **OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planaren autoebaluazioa da**. Horretarako, honako ebaluazio-dimentsio hauek jorratu dira:

1. 2018-2020 Ekintza Plana gauzatzeko prozesua ebaluatzea.
 - Talde partaide bakoitzari **esleitutako eginkizunak** bete ote diren.
 - Gauzatze-prozesuari dagokionez, **5 konpromisoetako bakoitza** balioestea:
2. 5 konpromisoetan lortutako emaitzak ebaluatzea



- **Teknika:** norberak euskarri elektronikoan beteriko inkesta
- **Landa-lana egindako data:** 2020ko azaroaren 4tik 26ra.
- **Unibertsoa:** **396 PERTSONA**, eta 120 erregistro osagarri; azken horiek bikoiztutako pertsonak dira, pertsona bera partaidetza-profil batean baino gehiagotan izan baitaiteke (talde sustatzailea, foro erregularra, konpromiso-taldeak, foro irekia).
- **Lagina:** **64** galdetegi beterik
- **Partaidetza-tasa:** % **16,2ko** partaidetza



C. EMAITZAK

1. OGP Euskadi osatzen duten taldeen eta espazioen ebaluazioa.
2. OGP Euskadin ezarritako konpromisoen ebaluazioa.
3. OGP Euskadi webgunea eta ematen duen informazioa ebaluatzea



C. EMAITZAK

1


OGP Euskadi osatzen duten taldeen eta espazioen ebaluazioa

- I. OGP Euskadi osatzen duten 4 foroen balioespen orokorra
- II. TALDE SUSTATZAILEAREN eta hobekuntza-alarren balioespena
- III. FORO ERREGULARRAREN eta hobekuntza-alarren balioespena
- IV. FORO IREKIAREN eta hobekuntza-alarren balioespena
- V. KONPROMISO-TALDEAREN eta hobekuntza-alarren balioespena
- VI. PILOTATZE-TALDEAREN eta hobekuntza-alarren balioespena

OGP Euskadi osatzen duten 4 foroen balioespen orokorra

- ✓ Lehenik eta behin, OGP Euskadiren bidez ezarritako 5 konpromisoak aztertzeari ekin aurretik, hurrengo grafikoak erakusten du zer balioespen egin duten **OGP Euskadi Ekintza Plana egituratzen duten talde edo foroetako partaideek**.
- ✓ 1etik 10era bitarteko eskalan (balorazio txarrena eta onena, hurrenez hurren), **partaideen % 45 eta % 65 bitarteko talde batek oso egokitzat jotzen du** foro bakoitzak esleitutako eginkizunetan egindako lana. Horrezaz gainera, lan hori nahikotzat jotzen ez duten pertsonak ez dira % 4ra iristen taldeetako batean ere. Azpimarratu behar da, halaber, gainerako parte-hartzaileen ustez oraindik badagoela hobetzeko tarterik (5 eta 7 artean).
- ✓ Zehazki, *konpromiso-taldeak* lortu du **balioespenik onena** (8tik gora % 65ek). Balantzaren beste aldean, *foro irekiak* ageri du **puntuaziorik apalena**, % 53k tarteko balioespenak eman baititu.


OGP EUSKADI OSATZEN DUTEN 4 FOROETAKO BAKOITZAREN EGINKIZUNEN BETETZE-MAILARI BURUZKO BALIOESPENA (%)




TALDE SUSTATZAILEAREN eta hobekuntza-alorren balioespena

- ✓ Esleitutako funtzioak erabat bete ez dituztela uste duten parte hartzaileei galdetu zaie **zer alderditan dagoen hobetu beharra haien ustean (% 48,4k, talde sustatzailearen kasuan, 7 puntutik beherako balioespena eman diote).**
- ✓ **Lautik batek** gutxi gorabehera uste du beharrezkoa dela *gizarte zibilak eta gizarte antolatuetan erabaki-organoetan parte-hartze handiagoa izatea* (% 23,3). Beraz, hautematen da nolabaiteko arrakala dagoela, alde batetik, *talde sustatzailearen* eta, bestetik, parte hartzen duten gainerako eragileen artean.
- ✓ Hobetzeko nolabaiteko tartearrekin identifikatutako beste alderdi batzuk dira, besteak beste, lidergo eta ikusgarritasun handiagoa (% 16,7), *komunikazioa hobetzea gainerako eragileekin* (% 13,3) eta *funtzionamendu arinagoa, malguagoa eta dinamikoagoa* (% 13,3).

TALDE SUSTATZAILEAREN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (%)
1ETIK 10ERAKO ESKALA (BALORAZIORIK TXARRENA ETA ONENA, HURRENEZ HURREN)



HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK (%)



P1a. Balioztatu 1etik 10era (1 da balioespenik txarrenea eta 10 onena) zer-nola betetzen dituzten dagozkien eginkizunak honako hauek:

P2a. Zure ustez, zertan hobetu behar du?


Oinarria: lagin osoa (64 kasu).

FORO ERREGULARRAREN eta hobekuntza-alorren balioespena

- ✓ Esleitutako funtzioak erabat bete ez dituztela uste duten parte hartzaileei galdetu zaie **haien ustean zer alderditan dagoen hobetu beharra** (% 45,9k, foro erregularraren kasuan, 7 puntutik beherako balioespena eman diote).
- ✓ *Foro erregularra* hobetzeko premiei dagokienez, planaren garapena deliberatzeko eta monitorizatzeko organoa denez, nabarmendu behar da *koordinazio eta argitasun handiagoa eskatzen direla kontzeptu eta prozesu berriak ezartzeko orduan* (% 14,3) eta, berriz ere, *gizarte zibilak eta gizarte antolatuak parte-hartze handiagoa izatea* (% 14,3).
- ✓ Gainera, *foro erregularrak hainbat beharrian* ditu, hala nola *aniztasuna areagotzea osieran* (% 10,7), *erabakitzeko gaitasun handiagoa* (% 10,7) eta *parte-hartzaileen dedikazio eta inplikazio handiagoa lortzea* (% 10,7).

FORO ERREGULARRAREN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (%)


1ETIK 10ERAKO ESKALA (BALORAZIORIK TXARRENA ETA ONENA, HURRENEZ HURREN)



7tik beherako puntuazioak

% 45,9

HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK (%)



P1b. Balioztatu 1etik 10era (1 da balioespenik txarrena eta 10 onena) zer-nola betetzen dituzten dagozkien eginkizunak honako hauek:


P2b. Zure ustez, zertan hobetu behar du?

Oinarria: lagin osoa (64 kasu).


FORO IREKIAREN eta hobekuntza-alorren balioespena

- ✓ Esleitutako funtzioak erabat bete ez dituztela uste duten parte hartzaileei galdetu zaie **zer alderditan dagoen hobetu beharra haien ustean (% 54,8k, foro irekiaren kasuan, 7 puntutik beherako balioespena eman diote).**
- ✓ Zalantzarik gabe, *foro irekiaren* eginkizunak betetzeari dagokionez ezarri beharreko **hobekuntza nagusia foroaren jarduerak gehiago zabaltzea da (% 32,4)**. Ustez, egindako lana gehiago zabalduz gero, herritarren inplikazio handiagoa lortuko litzateke, horixe baita hobekuntzaren benetako helburua.
- ✓ Ildo horri berari jarraikiz, **herritarren inplikazio handiagoaren bidez**, hobetu beharrekotzat jotzen da *ordezkagarritasun handiagoa sustatzea* (% 14,7) eta *askotariko eragileek parte hartzea* (% 8,8). Beraz, ezinbesteko elementuak dira ordezkarritasuna eta aniztasuna. Eragile berriak erakartzeko orduan, identifikatu den oztopoetako bat da konplexua dela sartzea alde aurretik prozesuarekin oso ohituta egon ezean (lan-kontzeptu eta -prozesu konplexuak).

FORO IREKIAREN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (%)
1ETIK 10ERAKO ESKALA (BALORAZIORIK TXARRENA ETA ONENA, HURRENEZ HURREN)



HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK (%)



P1c. Balioztatu 1etik 10era (1 da balioespenik txarrenea eta 10 onena) zer-nola betetzen dituzten dagozkien eginkizunak honako hauek:

P2c. Zure ustez, zertan hobetu behar du?


Oinarria: lagin osoa (64 kasu).

KONPROMISO-TALDEAREN eta hobekuntza-alorren balioespena


- ✓ Esleitutako funtzioak erabat bete ez dituztela uste duten parte hartzaileei galdetu zaie **zer alderditan dagoen hobetu beharra haien ustean** (% 34,9k, *konpromiso-taldearen* kasuan, 7 puntutik beherako balioespena eman diote).
- ✓ Nabarmendu behar da *konpromiso-taldeak* duela **baloraziorik onena**, funtzioak betetzeari dagokionez (hirutik bik 8tik gorako balioespena eman diote).
- ✓ Nolabaiteko hobekuntza-marjina hautematen duten pertsonen artean, 4 hobekuntza-arlo nabarmentzen dira: *ordezkagarritasun handiagoa sustatzea* (% 22,7), *hasieratik definitzea parte-hartzaile bakoitzaren helburuak eta konpromisoak* (% 18,2), *erabakitzeko gaitasun handiagoa* (% 13,6) eta *dedikazio eta inplikazio handiagoa* (% 13,6). Beraz, laburbilduz, *konpromiso-taldeen* ordezkagarritasun handiagoa behar dute, egiteko eta helburu argiekin, erabakitzeko gaitasunarekin eta dedikazio handiagorekin.

KONPROMISO-TALDEAREN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (%)

1ETIK 10ERAKO ESKALA (BALORAZIORIK TXARRENA ETA ONENA, HURRENEZ HURREN)



HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK (%)



P1d. Balioztatu 1etik 10era (1 da balioespenik txarrenea eta 10 onena) zer-nola betetzen dituzten dagozkien eginkizunak honako hauek:


P2d. Zure ustez, zertan hobetu behar du?

Oinarria: lagin osoa (64 kasu).


PILOTATZE-TALDEAREN eta hobekuntza-alorren balioespena

- ✓ Esleitutako funtzioak erabat bete ez dituztela uste duten parte hartzaileei galdetu zaie **zer alderditan dagoen hobetu beharra haien ustean (% 44,1ek, pilotatze-taldearen kasuan, 7 puntutik beherako balioespena eman diote).**
- ✓ *Pilotatze-taldeen* helburu nagusia konpromiso desberdinetatik diseinatutako ereduak testatzea da. Pilotatze-taldeeii esleitutako funtzioak hobeto betetzeko, parte-hartzaileek ikusten dute *dedikazio eta inplikazio handiagoa izan behar dutela* (% 16).
- ✓ Bigarren mailan, *helburu eta mugarri gauzagarriak ezarri behar dira* (% 8), eta funtsean *praktikoak diren proiektuetara bideratu behar dira ahaleginak* (% 8). Halaber, proiektu pilotuen kasuan, bereziki aipatzen dira *COVID-19aren ondorioz sorturiko arazoek zer-nolako zailtasunak sortu dituzten helburuak lortzeko orduan* (% 8).

PILOTATZE-TALDEAREN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (%) 1ETIK 10ERAKO ESKALA (BALORAZIORIK TXARRENA ETA ONENA, HURRENEZ HURREN)



HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK (%)



P1e. Balioztatu 1etik 10era (1 da balioespenik txarrenea eta 10 onena) zer-nola betetzen dituzten dagozkien eginkizunak honako hauek:

P2e. Zure ustez, zertan hobetu behar du?

Oinarria: lagin osoa (64 kasu).

C. EMAITZAK

2

OGP Euskadin ezarritako konpromisoen ebaluazioa.


- I. OGP Euskadin ezarritako **5 konpromisoetako** bakoitzaren gaineko **ezagutza-maila**
- II. OGP Euskadin ezarritako **5 konpromisoetako** bakoitzaren **gauzatze-maila**
- III. **1. KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. *Kontuak ematea agintaldiko planen bidez*
- IV. **2. KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. *Open data Euskadi eta Linked Open data*
- V. **3. KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. *Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin*
- VI. **4. KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. *Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia*
- VII. **5. KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. *Integritatearen EAEko sistema*

OGP Euskadin ezarritako 5 konpromisoen gaineko ezagutza-maila

- ✓ OGP Euskadiren Ekintza Plana osatzen duten talde edo foroei dagozkien balorazioak aurkeztu ondoren, atal honetan **5 konpromisoen gaineko balioespenaren emaitzak aurkezten dira, gauzatze-mailari dagokionez.**
- ✓ Horietarako, balioespenekin hasi aurretik, jakin behar da parte-hartzaileek zer **ezagutza-maila** duten 5 konpromisoetako bakoitzaren gainean. Izan ere, konpromiso bakoitza ezagutzen dutela adierazten duten pertsonak soilik egingo dute balioespena.
- ✓ Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, % 70,3 eta % 46,9 artekoa da ezagutza-maila. *Herritarrek parte hartzeko i-laba* (% 70,3) eta *Open Eskola* (% 70,3) dira **nabarmenenak** (3. eta 4. konpromisoak, hurrenez hurren). Hala ere, *integritatearen EAEko sistema* (5. konpromisoa) da bostetatik **gutxien nabarmentzen** den konpromisoa (% 46,9).
- ✓ Nolanahi ere, **GAINERAKOEN artean**, 2. KONPROMISOA (% 46,9) eta 4. KONPROMISOA (% 57,8) dira nabarmenenak konpromiso-taldekoak ez diren pertsonen artean.

EZARRITAKO 5 KONPROMISOEN GAINEKO EZAGUTZA-MAILA (%)

1 ETIK 5 ERA BITARTEKO KONPROMISOAK ORDENATURIK



*Oharra: GAINERAKOEN nabarmentze-mailaren bidez, konpromiso-taldekoak ez diren pertsonen artean zer-nolako ezagutza duten neurtu nahi da.

P3. OGP EUSKADI 2018-2020 EKINTZA-PLANAREN barruan, 5 konpromiso aurreikusten dira. Adierazi zein ezagutzen dituzun eta zein ez

Oinarria: lagin osoa (64 kasu).


OGP Euskadin ezarritako 5 konpromisoen gauzatze-maila

- ✓ 5 konpromisoetako bakoitzaren nabarmentze-maila ezagutu ondoren, parte-hartzaile bakoitzak **hautemandako gauzatze-maila** ikusten da grafikoan (1etik 10era bitarteko eskala batean, non 1ek hasi gabea adierazten baitu eta 10ek, berriz, gauzatua).
- ✓ Oro har, **gauzatze-maila handia** ikusten da 5 konpromisoetan: parte-hartzaileen % 70 eta % 80 inguruk adierazten dute konpromisoa gutxienez **funtsean garatuta** dagoela (7ko balioa edo hortik gorakoa).
- ✓ Zehazki, **1. konpromisoa** nabarmendu behar da, *agintaldiko planen bidez kontuak emateari buruzkoa*, horren gainean baitaude parte-hartzaileek **garapen-maila mugatuaren** irudipena (% 28,6), gainerako konpromisoetan baino handiagoa.

EZARRITAKO 5 KONPROMISOEN GAUZATZE-MAILAREN BALIOESPENA (%)

1ETIK 5ERA BITARTEKO KONPROMISOAK ORDENATURIK

BATEZBESTEKOA EZAGUTZEN DU



1. KONPROMISOAREN garapenari buruzko balioespena. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez


- ✓ Parte-hartzaileen erdiek baino gehixeagok (% 54,7) ezagutzen dute 1. KONPROMISOA (agintaldiko planen bidez kontuak ematea) eta gauza izan dira haren garapena balioesteko.
- ✓ Balioespen onenetik txarrenera ordenatuta, hurrengo grafikoak konpromisoaren garapenaren dimentsioak erakusten ditu. Lehenik eta behin, gardentasunari dagozkionak dira balioespen onena duten elementuak, bai beren maila handiagatik, bai teknologien erabilera; balioespen ona dute, halaber, kontuak emateari dagozkionak.
- ✓ Bigarren mailan daude herritarren parte-hartzea sustatzea eta lankidetzaren sortzea; horiek sortzen dituzte desadostasun-maila handienak. Pertsonen % 12k eta % 15ek ez du egokitzat jotzen 1. KONPROMISOAREN garapen-maila dimentsio horietan.

Parte hartzaileen
% 54,7k
ezagutzen du

1. KONPROMISOAREN GARAPENARI BURUZKO ALDERDIEN BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATURIK

BATEZBESTEKOA



2. KONPROMISOAREN garapenari buruzko balioespena. Open data Euskadi eta Linked Open data


- ✓ Hiru parte-hartzailetik bik baino gehiagok (% 67,2) ezagutzen dute 2. KONPROMISOA (*Open data eta Linked Open data*), eta gauza dira haren garapena balioesteko.
- ✓ Balioespenei dagokienez, dimentsio guztietan 7 puntutik gorako batez besteko balioespenak izanik, *gardentasun-mailarekin eta gardentasuna sustatzeko teknologiaren erabilerarekin* loturiko dimentsioak nabarmentzen dira. Hurrenez hurren, % 42,9k eta % 45,7k nabarmentzen dute bi dimentsio horien garapen bikaina.
- ✓ Berriz ere, balioespen kaskarrena duten dimentsioak (batez beste balioespen nabarmena izan arren) *lankidetzeta-sareak sortzea eta herritarren parte-hartzea sustatzeko bultzada* dira.

Parte hartzaileen
% 67,2k
ezagutzen dute

2. KONPROMISOAREN GARAPENARI BURUZKO ALDERDIEN BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATURIK

BATEZBESTEKOAK



3. KONPROMISOAREN garapenari buruzko balioespena. Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin


- ✓ Hiru parte-hartzailetik bik baino gehiagok (% 70,3) ezagutzen dute 3. KONPROMISOA (Herritarren parte-hartzearen ilab-a) eta gauza dira haren garapena balioesteko.
- ✓ Berriz ere ikusten denez, 7 puntutik gorakoak dira dimentsio guztietako batez besteko balioespenak. Hala ere, ondoen kokatutako dimentsioen artean, *gardentasun-maila* nabarmentzen da bakarrik oraingoan. Egia da, hala ere, gainerakoek baino balioespen nabarmen altuagoak izan arren, % 8 inguruk ez duela nahikotzat jotzen dimentsio horren garapena 3. KONPROMISOAN.
- ✓ Kontrako aldean, garapenari dagokionez, *gobernuak irekitzen egindako ekarpena* da balioespen txikiena izan duen dimentsioa. Batez besteko balorazioa 7 izanik, parte-hartzaileen % 10,5ek uste du ez duela lortu gainditzeko adina garapen.

Parte hartzaileen
% 70,3k
ezagutzen dute

3. KONPROMISOAREN GARAPENARI BURUZKO ALDERDIEN BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATURIK

BATEZBESTEKOAK



4. KONPROMISOAREN garapenari buruzko balioespena. Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia


- ✓ Beste behin ere, hiru parte-hartzaitetik bik baino gehixeagok (% 70,3) ezagutzen dute 4. KONPROMISOA (Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia) eta gauza izan dira haren garapena balioesteko.
- ✓ Kasu honetan, 7 puntutik gorako batez besteko balioespenarekin, goren balioetsitako dimentsioen artean ageri dira lehendabizikoz sortutako ikaskuntzen balioa eta lankidetzaren sorrera. Oso gertutik du, aurreko konpromisoetan bezala, gardentasun-maila.
- ✓ Hala ere, gainerako konpromisoetan ez bezala, gardentasuna sustatzeko teknologia erabiltzeak izan du balioespen kaskarra 4. KONPROMISO honetan.

Parte hartzaileen
% 70,3k
ezagutzen dute

4. KONPROMISOAREN GARAPENARI BURUZKO ALDERDIEN BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATURIK

BATEZBESTEKOAK



5. KONPROMISOAREN garapenari buruzko balioespena. Integritatearen EAEko sistema


- ✓ Azkenik, parte-hartzaileen erdiek baino zertxobait gutxiagok (% 46,9) ezagutzen dute 4. KONPROMISOA (Integritatearen EAEko Sistema) eta gauza izan dira haren garapena balioesteko.
- ✓ Azken konpromiso horretan, bi plano edo maila ikusten dira argi eta garbi parte-hartzaileen balorazioan. Lehenik eta behin, **desadostasun txikiena sortzen duten dimentsioak**; horien artean ageri dira, esaterako, *sortutako ikaskuntzen balioa, gardentasun-maila, kontu-ematearen maila eta produktuen kalitatea*. Guztiek dituzte puntuazio nabarmenak.
- ✓ Bigarren mailan, **desadostasun-maila handiena sortzen duten dimentsioak** ditugu: *gobernuak irekitzen laguntzea, lankidetzaren sareak sortzea, produktuak berritzea, gardentasuna sustatzeko teknologia erabiltzea eta, batez ere, parte-hartzea sustatzeko bultzada*.

Parte hartzaileen
% 46,9k
ezagutzen dute

5. KONPROMISOAREN GARAPENARI BURUZKO ALDERDIEN BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATURIK

BATEZBESTEKOA



C. EMAITZAK

3


OGP Euskadi webgunearen eta bertako informazioaren ebaluazioa

- I. OGP Euskadi webgunearen **ezagutza-maila**
- II. OGP Euskadi webguneak **ematen duen informazioaren balioespena**

OGP Euskadi webgunearen ezagutza-maila

- ✓ Azken atal honetan, **OGP Euskadi webgunearen ezagutza-mailari buruzko emaitzak** aurkezten dira, oinarritzat hartuta ea parte-hartzaileek ezagutzen ote dituzten edo ez konpromiso bakoitzari buruzko edukiak. Beraz, aurretik erabilitako logika berari eutsita, webguneko edukiak balioetsi baino lehen, grafiko honek erakusten du zer ezagutza-maila aldatzen den nabarmen konpromiso bakoitzean.
- ✓ Lehenik eta behin, **10etik 8k dio ezagutzen dituela webgunearen eduki orokorrak** —nabarmentzeko datua da hori—; alabaina, kopuru hori nabarmen jaisten da konpromiso bakoitzaren eduki espezifikoei dagokienez, eta horrek erakusten du modulu bakoitzaren edukiek izaera autonomoa dutela; izan ere, eduki orokorrak ezagutzen dituzten parte-hartzaile guztiak ez dira sartzen gainerako eduki espezifikoetara. Nolanahi ere, kontuan izan behar da konpromiso-taldeetan, foro erregularrean edo talde sustatzailean parte hartzen dutenek berariazko kanalak izan dituztela talde horien zereginetan parte hartzeko, eta horrek ez du esan nahi webgunearen bidez haietarako sarbiderik ez dutenik. Webgunearen helburu nagusiak foro irekia eta, oro har, publikoa dira.
- ✓ Analisisian **GAINERAKOEN edo konpromiso-taldekoak ez diren pertsonen ezagutza sartzean**, ikusten da konpromiso-taldean parte hartzen ez duten pertsonen artean OGP Euskadi webguneko edukirik ezagunenak 4. KONPROMISOARI buruzkoak direla.

OGP EUSKADI WEBGUNEAREN ETA HAREN EDUKIEN EZAGUTZA-MAILA PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN (%)
1ETIK 5ERA BITARTEKO KONPROMISOAK ORDENATURIK



*Oharra: GAINERAKOEN nabarmentze-mailaren bidez, konpromiso-taldekoak ez diren pertsonen artean zer-nolako ezagutza duten neurtu nahi da. P10a. Adieraz ezazu ezagutzen ote duzun OGP Euskadi webgunea eta zer balioespen egiten duzun ematen duen informazioaren gainean. Oinarria: lagin osoa (64 kasu).


OGP Euskadi webguneak ematen duen informazioaren balioespena

- ✓ *Eduki orokorren* balioespena nahiko altua da (7,45), eta **zenbait desberdintasun** ageri dira konpromisoari dagokienez.
- ✓ Konpromiso bakoitzaren edukiek ematen duten informazioaren artean, 2. *KONPROMISOAREN* (7,69) eta 4. *KONPROMISOAREN* (7,67) edukiek dute **balioespenik onena**.
- ✓ **Tarteko posizioan** daude (eta, horrenbestez, hobetzeko nolabaiteko bidearekin) 3. *KONPROMISOAREN* edukiak (7,53) eta 5. *KONPROMISOAREN* edukiak (7,13).
- ✓ Azkenik, 1. *KONPROMISOAREN* edukiek dute **hobekuntzarako tarte handiena** (6,77), parte-hartzaileen % 40k ez baititu oso ontzat jotzen.

OGP EUSKADI WEBGUNEAK EMATEN DUEN INFORMAZIOAREN BALIOESPENA (%)

1 ETIK 5 ERA BITARTEKO KONPROMISOAK ORDENATURIK

BATEZBESTEKOAK



D. ONDORIOAK

Ondorio nagusiak

1. OGP Euskadi osatzen duten taldeen eta espazioen ebaluazioa.

1. OGP Euskadi osatzen duten 5 talde eta foroek **emaitza nabarmen ona lortu dute beren eginkizunetan** (7 puntutik gorako balioespenak batez beste).
2. **la parte-hartzaile guztiek jotzen dute ontzat**, gutxienez, talde bakoitzari esleitutako eginkizunak betetzeko prozesua (kasu bakar batean ere ez dira % 4ra iristen kalifikazio txarrak —ez-gaindituak—).
3. *Konpromiso-taldeak* lortu du batez besteko puntuaziorik handiena (% 65ek 8tik gora eman dio).
4. *Foro irekiak* du hobetzeko tarte handiena, gainerakoekin alderatuta (% 53k dio tarteko posizioetan dagoela).
5. **Hobetzeko arloei dagokienez**, talde edo foro bakoitzean berezitasun nabarmenak izanik, hauek dira identifikatutako hobekuntza edo behar nagusiak:
 - ✓ *Gizarte zibilak eta gizarte antolatuak erabaki-organoetan parte-hartze handiagoa izatea*
 - ✓ *Parte hartzen duten pertsonen aniztasuna areagotzea*
 - ✓ *Gizarteko sektoreen ordezkartza handiagoa sustatzea*
 - ✓ *Hasieratik definitzea eta ezartzea eragile partaide bakoitzaren helburuak eta konpromisoak*
 - ✓ *Dedikazio eta inplikazio handiagoa esleitutako jardueretan edo funtzioetan*
 - ✓ *Bereziki aipatu behar da komunikazio-estrategia hobetu behar dela, konpromiso bakoitza nabarmenagoa izan dadin. Eginkizunak betetzeari buruzko balioespen negatiboa edo erdipurdikoa egin duten pertsonen artean, ehuneko esanguratsu batek ez dauka egin beharreko hobekuntzei buruzko iritzirik edo iritzia emateko adina informaziorik.*

2. OGP Euskadin ezarritako konpromisoen ebaluazioa.

1. Lehenik eta behin, eta 5 konpromisoetako bakoitza balioztatu aurretik, jakin behar da zein den horietako bakoitzaren **nabarmentze- edo ezagutza-maila**, konpromisoaren berri dutenek soilik ebaluatu ahal izango baitute behar bezala. Parte-hartzaileak erreferentzia hartuta, konpromiso bakoitzaren ezagutza-maila ehuneko hauen artean dago: **% 46,9** (*integritatearen EAEko sistema*) **eta % 70,3** (*herritarren parte-hartzearen I-laba eta Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia*).
2. Hala ere, **talde bakoitzeko partaideek erabateko ezagutza-mailari egiten dioten ekarpena neutralizatzen badugu** (pentsatzekoa da konpromiso bakoitzeko parte-hartzaileek ezagutzen dutela konpromiso hori bera) eta talde horretako kide ez diren parte-hartzaileekin soilik geratzen bagara, *Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia eta Open data Euskadi eta Linked Open data* konpromisoek lortzen dute ezagutza-mailarik handiena (**% 57,5 eta % 46,9, hurrenez hurren**).
3. Konpromiso bakoitzaren gauzatze-mailaren balorazioari dagokionez, oro har, **betearazpen-maila handia ikusten da** 5 konpromisoetan. Zehazki, *integritatearen EAEko sistema eta, bereziki, Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia* dira **gauzatze-mailari dagokionez hobekuntzarako tarte handiena ageri duten konpromisoak** (parte-hartzaileen % 8,7k eta % 13,9k ez dute nahikotzat jo gauzatze-maila).



2. OGP Euskadin ezarritako konpromisoen ebaluazioa. (II)

1. 1. **KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. *Kontuak ematea agintaldiko planen bidez*
 1. Gardentasun-maila eta gardentasun hori sustatzeko teknologien erabilera dira **goren balioetsitako elementuak**.
 2. Herritarren parte-hartzea sustatzea eta lankidetzeta-sareak sortzea dira **beheren balioetsitako elementuak**.
2. 2. **KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. Open data Euskadi eta Linked Open data
 1. Gardentasun-maila eta gardentasun hori sustatzeko teknologien erabilera dira **goren balioetsitako elementuak**.
 2. Lankidetzeta-sareak sortzea da **beheren balioetsitako elementua**.
3. 3. **KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin
 1. Gardentasun-maila eta kontuak ematea dira **goren balioetsitako alderdiak**.
 2. Gobernuak irekitzen laguntzea da **beheren balioetsitako elementua**.
4. 4. **KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. Open Eskola: herritarrentzako eskola irekia
 1. Egindako ikaskuntzen balioa, sareak sortzea eta gardentasun-maila dira **goren balioetsitako elementuak**.
 2. Lortutako produktuen berrikuntza eta gardentasuna sustatzeko teknologien erabilera dira **beheren balioetsitako elementuak**.
5. 5. **KONPROMISOAREN** garapenari buruzko balioespena. Integritatearen EAEko sistema
 1. Konpromisoa garatzean sortutako ikaskuntzen balioa da **goren balioetsitako elementua**.
 2. **Beheren balioetsitako elementuak** dira gardentasuna eta herritarren parte-hartze handiagoa sustatzeko teknologien erabilera

3. OGP Euskadi webgunea eta ematen duen informazioa ebaluatzea

1. OGP Euskadiren webgunea ebaluatzeko asmoz, kontsultatu da, lehenik eta behin, ezagutzen dituztela webgunearen edukiak eta, bigarrenik, galdetu da zer balorazio egiten duen eduki horiei buruz. Beraz, emaitzetan oinarrituta, **10 parte-hartzailetatik 8k ezagutzen dituzte webgunearen eduki orokorrak**. Kopuru hori nabarmen jaisten da konpromiso bakoitzaren eduki espezifikoei dagokienez, eta horrek erakusten du modulu bakoitzaren edukiek izaera autonomoa dutela; izan ere, eduki orokorrak ezagutzen dituzten parte-hartzaile guztiak ez dira sartzen gainerako eduki espezifikoetara. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da konpromiso-taldeek beren zereginak betetzeko interakzio-kanal espezifikoak zituztela.
2. **Edukien ezagutza nabarmen aldatzen da** dagokion konpromisoaren arabera. Oro har, **edukirik ezagunenak** 3. KONPROMISOARI buruzkoak dira (% 56,3). Kontrako aldean, 5. KONPROMISOKOAK dira **eduki ezezagunenak**.
3. Hala ere, aurretik planteatutako logika bera erabilita, **talde bakoitzeko parte-hartzaileen ekarpena neutralizatzen badugu, konpromiso-taldekoak ez diren pertsonak 4. KONPROMISOAREN edukiak ezagutzen dituzte ondoen** (4. konpromiso-taldeko kide ez direnen artean **% 39,1ek** ezagutzen ditu haren edukiak).
4. Edukien balorazioari dagokionez, oro har, **eduki orokorren balioespenak nahiko altuak dira (7,45)**. Emaitzek erakusten dute **balioespen onena jaso duten edukiak** 2. KONPROMISOARI (7,69) eta 4. KONPROMISOARI (7,67) dagozkionak direla. Tarteko posizioan daude 3. KONPROMISOAREN edukiak (7,53) eta 5. KONPROMISOAREKIN loturikoak (7,13); hala, balioespen egokia edo ona izan arren, hobetzeko nolabaiteko tarteak ageri dute. Azkenik, 1. KONPROMISOAREN edukiak daude (6,77).